

USURBILGO UDALA

Iragarkia

Plenoak 2012ko abenduaren 20an egindako bilkuran, Usurbilgo udalerrian igerilekuen instalazioa arautzeko udal ordenantza behin betikoz onartzea erabaki zuen, administrazio bideari bukaera emanez.

Ados ez dagoenak, bi hilabete ditu errekurtsua jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren aurrean. Esandako epea iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Plenoak erabakitakoa betez, aipatutako Ordenantza osoa argitara ematen dugu.

Usurbil, 2012ko abenduaren 20a.—Mertxe Aizpurua
Arzallus, Alkatea. (11922)

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

Anuncio

El Pleno en sesión celebrada el día 20 de diciembre de 2012 acordó aprobar definitivamente la Ordenanza para la regulación de instalación de piscinas en el término municipal de Usurbil, poniendo fin a la vía administrativa.

Contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao. El plazo señalado se computará a partir del día siguiente al de la presente publicación.

De conformidad con lo acordado por el Pleno, se procede a publicar el texto completo de la citada Ordenanza.

Usurbil, a 20 de diciembre de 2012.—La Alcaldesa. Mertxe
Aizpurua Arzallus. (11922)

USURBIL UDALERRIAN IGERILEKUEN
INSTALAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

ARRAZOIEN AZALPENA:

Kirolaren, aisialdiaren eta osasunaren kontzeptu berria dela eta, ontziak dituzten instalazioak pixkanaka ugartu egin dira. Instalazio horiek elementu ugari bildu ohi dute eta horrek dentsitate baxuko bizitegi-eraikinekiko osagarriak diren familiako erabilerarako igerilekuen eskaera handitu egin du. Erabilerari pribatuko igerilekuak ugartu izanak eragin zuzena du udalerriko ur-kontsumoan eta horrek, aldi berean, hura arautu beharra eragin du hirigintzako arazoak zein Usurbilgo baliabide hidrikoei lotutako ingurumen-arazoak direla eta.

Ordenantza honen helburua igerilekuen instalazioaren kontrol teknikoa eta hirigintzako egitea eta ura modu arduratsuan erabiltzea da. Era berean, igerilekuen mantentze-lanekin, funtzionamendurekin eta erabilerarekin lotutako erantzukizunak zehaztu nahi dira. Horrekin lotuta, segurtasun-baldintzak erabiltzea eta etxebizitzetakoekiko eta instalazio osagarriekiko ezberdinak diren ur-hartuneak instalatzea eskatuko da.

Hori guztia dela eta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ematen dizkion eskuduntzen arabera, Igerilekuen instalazioa Usurbil udalerrian arautzeko Ordenantza onartu da.

1. artikulua. Helburua.

Ordenantza honen helburua lursail pribatuetako igerileku-instalazioek bete behar dituzten baldintza teknikoak oro har arautzea da Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ematen dizkion mugen eta eskuduntzen baitan.

Obrako igerilekuen eraikuntza eta erabilerari, eta igerileku eramangarrien instalazioa arautuko dira igerileku haien edukiera bost (5) metro kubiko baino handiagoa denean.

Alkatetzaren Dekretu bidez, ur-ekasiaz dagoen garaian, igerilekuen instalazioa eta erabilerari erregulatu ahal izango da.

2. artikulua. Esparrua.

1. Ordenantza honen aplikazio-esparruak Usurbil udalerrira osoari eta jabetza pribatuko (haien jabea pertsona fisikoa edo juridikoa denean) igerileku ireki eramangarri edo obrako igerileku guztiei eta haien instalazio eta eranskin guztiei eragingo die.

2. Espresuki debekatuta daude estalitako igerilekuak.

3. Debebatuta dago igerilekuak lurzoru urbanizazinean instalatzea, eta lurzoru urbanizagarrian hirigintzako plangintzan aurrez ikusitako igerileku komunitarioak edo banakakoak soilik onartuko dira.

4. Lurzoruaren sailkapenari dagokionez, ordenantza hau indarrean sartu den unean sailkatutako hiri-lurrean eta familiabakarreko edo bi familiako etxebizitzetako lotutako lursailtan igerilekuak instalatzeko soilik izango da aplikagarria ordenantza; hau da, ez igerileku komunitarioen kasuan.

ORDENANZA PARA LA REGULACIÓN DE
INSTALACIÓN DE PISCINAS EN EL TÉRMINO
MUNICIPAL DE USURBIL

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

El nuevo concepto en la práctica del deporte, el ocio y la salud ha llevado a un aumento progresivo de instalaciones dotadas de vasos que incorporan una gran variedad de elementos incrementando la demanda de piscinas de uso familiar complementarias a edificaciones residenciales de baja densidad. La proliferación de piscinas de uso privado afecta directamente al consumo de agua del municipio, lo que conlleva la necesidad de su regulación tanto por razones urbanísticas como medioambientales ligadas a los recursos hídricos de Usurbil.

La presente Ordenanza tiene como finalidad el control técnico y urbanístico de la instalación de las piscinas así como el uso responsable del agua. Igualmente se pretende determinar las responsabilidades en el mantenimiento, funcionamiento y uso de las piscinas, exigiendo tanto la adopción de condiciones de seguridad como la instalación de acometidas de agua diferentes al de las viviendas e instalaciones complementarias.

Por todo ello, en virtud de las competencias que le otorga la Ley 7/1985 del 2 de abril Reguladora de las Bases del Régimen Local se aprueba la Ordenanza para la regulación de instalación de piscinas en el término municipal de Usurbil.

Artículo 1. Objeto.

La presente ordenanza tiene por objeto regular con carácter general las condiciones técnicas que deben reunir las instalaciones de piscina en parcelas privadas, dentro de los límites y atribuciones que confiere la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, y la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del país Vasco.

Se regula la construcción y el uso de piscinas de obra y la instalación de piscinas portátiles cuando estas últimas superen la capacidad de cinco (5) metros cúbicos.

Por Decreto de Alcaldía, en épocas de escasez de agua, se podrá regular la instalación y el uso de piscinas.

Artículo 2. Ámbito.

1. El ámbito de aplicación de esta ordenanza viene referido a todo el término municipal de Usurbil y a todas las piscinas descubiertas portátiles o de obra, de titularidad privada, cuyo titular es una persona física o jurídica, así como sus instalaciones y anexos.

2. Se prohíben expresamente las piscinas cubiertas.

3. Queda prohibida la instalación de piscinas en suelo no urbanizable, y en suelo urbanizable únicamente serán admisibles aquellas piscinas comunitarias o individuales que estén previstas en el planeamiento urbanístico.

4. Respecto a la clasificación del suelo, la presente ordenanza será aplicable exclusivamente para la instalación de piscinas en suelo urbano clasificado en el momento de la entrada en vigor de la presente Ordenanza, y en parcelas vinculadas a viviendas unifamiliares o bifamiliares, no piscinas comunitarias.

5. Hirigintzako plangintza aldatu eta hiri-lurra handituko balitz, igerilekuen erregulazioa izapidetutako plangintza orokorreko tresnaren bidez egin beharko da.

3. artikulua. Igerileku eramangarriak.

Igerileku eramangarriak muntatzeko emandako lizentziak behin-behineko izaera izango dute eta haien instalazioa ezingo da mantendu 5 hilabetez baino gehiagoz maiatzaren 1etik irailaren 30era arteko aldian.

4. artikulua. Beharrezko dokumentazioa.

1. Igerileku iraunkorra eraikitzeke lizentziaren eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

— Eskuduntza duen teknikariak sinatutako proiektua. Hauek bildu beharko ditu:

— Kokapenaren plano 1:2000 eskalan. Bertan, lizentziaren helburu izango den lursaila zehaztu beharko da.

— Eskaerari lotutako lursailaren edo lursailen plano topografikoa (gutxienez, 1:500 eskalan). Plano horretan zehaztuko dira hauek: altimetriako kotak, bertako eraikinak eta zuhaitzak, eta lur-erazketak edo lubetak eragin ditzakeen ondoko lursailen edo eraikuntzen kokapena, oinplanoan eta altueran.

— Memoria deskribatzailea, justifikatzeak eta teknikoak. Bertan, obrek irauteko aurrez ikusitako denbora eta egin beharreko lanen ezaugarriak, programa eta koordinazioa biltzen dituen azalpen-memoria gehitu beharko dira.

— Aurrekontuak kapituluka merkatuko prezioen arabera.

— Dagozkion zuzendaritza teknikoek enkargu-oharrak.

— Hondakinen kudeaketarako ikerketa, lurra isurtzeko aurrez ikusitako hondakindegia homologatuaren jakinarazpena barne.

— Uraren Kudeaketa Plana. Bertan, ura berrerabiltzeko eta arazteko sistema zehaztu beharko da.

(Udalari aurkeztu beharreko arazuko lizentzia-eskaeran, igerilekua eraikitzeke edozein proiektutan, indarrean dagoen hirigintzako araudia zehatz-mehatz betetzeaz gain, uraren kudeaketa-plana gehitu beharko da. Bestalde, dagozkion isuri-baimenak atxiki beharko dira. Hori egin ezean, ez da arazuko espedientea izapidetuko. Era berean, ura berrerabiltzeko eta arazteko sistema zehaztu beharko da proiektuan).

2. 5 metro kubiko baino gehiagoko edukiera duten igerileku eramangarrien kasuan, Udalean fabrikatzaileak emandako instalazio-memoria aurkeztu beharko da udal-erregistroan sartu ahal izateko. Instalazio horiek ekipamendu araztailea izan beharko dute.

5. artikulua. Ezaugarri teknikoak.

5.1. Igerileku iraunkorretarako baldintza teknikoak:

5. En el supuesto de que se modifique el planeamiento urbanístico y se amplíe el suelo urbano, la regulación de las piscinas deberá de realizarse en el instrumento de planeamiento general que se tramite.

Artículo 3. Piscinas portátiles.

Las licencias que se concedan para el montaje de piscinas portátiles tendrán carácter provisional y su instalación no podrá mantenerse por más de 5 meses, en período desde el 1 de mayo a 30 de septiembre.

Artículo 4. Documentación necesaria.

1. A la solicitud de la licencia de construcción de piscina permanente, se acompañarán los siguientes documentos:

— Proyecto firmado por técnico competente, que debe incluir:

— Plano de emplazamiento a escala 1:2000, señalando la finca objeto de la licencia.

— Plano topográfico de la parcela o parcelas a que se refiere la solicitud, a escala no menos a 1:500, en el que se indique las cotas de altimetría, la edificación y arbolado existentes y la posición, en planta y altura de las fincas o construcciones vecinas que pueden ser afectadas por el desmonte o terraplén.

— Memoria descriptiva, justificativa y técnica indicando el tiempo previsto de duración de las obras y explicativa de las características, programa y coordinación de los trabajos a efectuar.

— Presupuestos por capítulos a precios de mercado.

— Hojas de encargo de las direcciones facultativas correspondientes.

— Estudio de Gestión de Residuos, incluyendo la comunicación de vertedero homologado previsto para el vertido de tierra.

— Plan de Gestión del Agua que incluya entre otros, la concreción del sistema de depuración y reutilización del agua.

(En todo proyecto de construcción de piscina que se presente en el Ayuntamiento en solicitud de la preceptiva licencia además de cumplir escrupulosamente la normativa urbanística vigente deberá constar un plan de gestión del agua. Además, se adjuntarán las autorizaciones de vertido correspondientes. En caso contrario no se tramitará el preceptivo expediente. Deberá constar en proyecto, igualmente, el sistema de depuración y de reutilización del agua.)

2. En el caso de piscinas portátiles de más de 5 metros cúbicos de capacidad, se deberá presentar en el Ayuntamiento una memoria de la instalación de las que facilite el fabricante, para su inclusión en el registro municipal. Estas instalaciones deberán tener equipo depurador.

Artículo 5. Características técnicas.

5.1. Condiciones técnicas para piscinas permanentes:

1. Igerileku iraunkorrek ura husteko ekipamenduak (saneamenduko sare orokorrera erabat hustea ahalbidetu beharko dute) eta erabiltzaile kopuruaren eta edukiaren arabera urak arazteko instalazioa izan beharko dituzte. Hustuketa ur beltzen sarearen bidez egin beharko da eta lursaillean dagoen hartuneko kutxatilara lotuta egongo da.

2. Igerilekuak lurraren egungo sestrara egokituko dira. Horrekin lotuta, uraren mailak zehaztutako kotak harekiko $-0,5/+0,5$ metroko tartearen baitan egon beharko du.

3. Igerilekuek (uraren maila eta urbanizatutako hondartzaren ertza barne) lursail pribatuko eta bertako eraikinetako mugekiko 5 metroko tartea errespetatu beharko dute gutxienez.

4. Lursailaren azaleraren % 30eko gehieneko okupazioa ezarri da. Horrekin lotuta, oinplanoko gehieneko okupazioak 25 m² eta 35 m³-ko bolumena izango du. Era berean, ez dira onartuko igerilekuak 500 m² baino gutxiagoko azalera duten lursailetan.

5. Igerilekuen perimetroa babestu egingo da segurtasun-baldintzak zaindu ahal izateko.

6. Igerilekuen instalazio osagarriak sestra azpian kokatuko dira.

7. Igerilekuen ontziak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Ontzia haren egituraren egonkortasuna, erresistentzia eta estankotasuna bermatzeko moduan eraiki beharko da.

b) Ontziaren forma edozein izanda ere, uraren zirkulazioa eragotzi edo erabiltzaileentzako arriskua eragin dezaketen angeluak, bihurguneak edo oztopoak ekidin beharko dira. Ez da igerilaria urpean atxiki dezakeen edozein izaeratako urpeko oztoporik izango.

c) Horma bertikalak eta ontziaren hondoa kolore argiko material lauekin estalita egongo dira. Erraz garbitzeko eta desinfektatzeko modukoak eta iragazgaitzak izango dira, eta egonkor egongo dira ur-tratamenduan erabilitako produktuen aurrean. Ontziaren hondoko materiala ez labaingarria izango da.

d) Ontzia ingurutzen duen eremuan jarriko den materiala ez da labaingarria izango.

5.2. Igerileku guztietarako baldintza teknikoak:

Arau hau indarrean sartzen den datatik aurrera eraiki edo instalatu nahi den edozein igerileku iraunkorrek edo 15 metro kubiko baino gehiagoko edukiera duten igerileku eramangarriek baldintza hauek bildu beharko dituzte:

a) Instalatu nahi den etxebizitzakoaren edo lursaillekoaren ezberdina den ur-hartunea izan beharko dute. Kontagailu independentea izango dute lursailetik kanpo instalatuta, bertara erraz sartu ahal izateko.

b) Kontagailutik gertu ixteko giltza instalatu beharko da sartzeko erraza den kutxatilan udal-zerbitzuek, beharrezkoa izanez gero, giltza itxi ahal izan dezaten. Udal-zerbitzuek giltzari zigilua jarriko diote. Zigilu hori kendu egingo da betetzeko baimendutako lanak egin ahal izateko.

c) Erabat debekatuta dago igerilekua ur-horniketako sare nagusitik betetzea aurreko bi baldintzak betetzen ez badira.

1. Las piscinas permanentes dispondrán de equipos de desagüe que permitan su vaciado completo a la red general de saneamiento, así como instalación de depuración de aguas adecuada a su capacidad y número de usuarios. El desagüe se realizará a través de la red de aguas fecales, conectada a la arqueta de acometida existente en la parcela.

2. Las piscinas se adaptarán a la rasante actual del terreno, debiendo encontrarse la cota definida por la lámina de agua dentro del intervalo $-0,5/+0,5$ metros respecto de aquella.

3. Las piscinas, incluida lámina de agua y borde de playa urbanizada, respetarán una separación mínima de 5 metros a los linderos de la parcela privada y edificaciones existentes.

4. Se establece una ocupación máxima del 30% de la superficie de la parcela con una ocupación máxima en planta de 25 m² y 35 m³ de volumen, no siendo admisibles piscinas en aquellas parcelas con superficies inferiores a 500 m².

5. Las piscinas se protegerán perimetralmente con objeto de preservar las condiciones de seguridad.

6. Las instalaciones complementarias de las piscinas deberán ubicarse bajo rasante.

7. El vaso de las piscinas deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) El vaso estará construido de manera que se asegure la estabilidad, resistencia y estanqueidad de su estructura.

b) Cualquier que sea la forma del vaso, se evitarán los ángulos, recodos u obstáculos que puedan dificultar la circulación del agua o representen peligro para los usuarios. No existirán obstrucciones subacuáticas de cualquier naturaleza que puedan retener al nadador debajo del agua.

c) Las paredes verticales y el fondo del vaso estarán revestidos con materiales lisos, de color claro, de fácil limpieza y desinfección, impermeables y estables frente a los productos utilizados en el tratamiento del agua. El material del fondo del vaso será antideslizante.

d) El material que se coloque en la zona que borda el vaso no se deslizando.

5.2. Condiciones técnicas para todo tipo de piscinas:

Toda piscina permanente, así como las portátiles con más de 15 metros cúbicos de capacidad, que se pretendan construir o instalar a partir de la entrada en vigor de la presente norma deberán incluir las siguientes condiciones:

a) Deberán tener una acometida de agua diferente de la de la vivienda o finca donde se pretenda instalar, con un contador independiente, instalado fuera de la finca para su fácil acceso.

b) Deberá instalarse una llave de paso cercana al contador, en una arqueta de fácil acceso para que los servicios municipales puedan proceder al cerrado de la llave en caso de necesidad. Los servicios municipales colocarán un precinto a la llave que será retirado para realizar las operaciones autorizadas de llenado.

c) Queda absolutamente prohibido llenar una piscina desde la red general de abastecimiento de agua si no se cumplen las dos condiciones anteriores.

d) Ez da igerilekuetarako lehen erabilerako lizentziarik emango artikulua honetako a) eta b) puntuak betetzen direla egiaztatuta ezean.

e) Debekatuta daude honako hauek: tranpolinak, jauziak egiteko plataformak, txirristak, irristagailuak eta uretako beste elementu batzuk.

6. artikulua. Eraikigarritasun haztatua

Igerileku iraunkor bat eraikitzeak edo igerileku bat instalatzeak ez du eragingo hiri-lur finkatuan eraikigarritasun haztatua handitzea.

7. artikulua. Zergak, tasak eta eskubideak ordaintzea.

1. Igerilekuaren eraikuntza eraikuntzen, obren eta instalazioen zerga ordaintzearen mende egongo da Ordenantza Fiskaletan ezarrita dagoena betez.

2. Lizentziak kasu eta modalitate ugarien arabera izapidetzeko tasen zenbatekoa dagozkion Ordenantza Fiskaletan zehaztuko da.

3. Ur tasa bereiztua kobratuko da igerilekuen kontsumoagatik, eta Ordenantza Fiskaletan arautuko da.

8. artikulua. Igerilekuak erabiltzeko aldiari buruzkoa.

Igerilekuak maiatzaren 1etik irailaren 30era arte soilik erabili ahal izango dira.

9. artikulua. Sare publikoko uraren erabilerari buruzkoa.

Usurbil udalerrri osoan, izaera pribatuko igerilekuak horniketa-sareko urarekin betetzea aldi hauetan soilik baimenduko da:

a) maiatzaren 1etik irailaren 30era arte.

b) Igerilekuak ezingo dira asteburuetan bete: ostiraleko 24:00etatik astelcheneko 08:00ak arte.

c) Igerilekuak ezingo dira gaueko ordutegian bete: 22:00etatik 08:00ak arte.

10. artikulua. Igerilekuak betetzearen inguruan

Horniketa-sareko urarekin igerilekuak bete behar direnean (obrakoak edo eramangarriak), astebete lehenago horren berri eman beharko zaio Udalari eta udal-zerbitzuek emandako argibideak zehatz-mehatz beteta egiaztatuta beharko dira lan horiek.

11. artikulua. Igerilekuak estaltzearen inguruan.

Igerilekuetako ontziak lonekin edo antzekoekin estali beharko dira urriaren 1etik apirilaren 30era bitartean segurtasun-baldintzak bermatzeko eta Ordenantza honek baimentzen ez dituen datetan ez erabiltzeko.

12. artikulua. Erantzukizunari buruzkoa.

Igerilekuen titularrak izango dira haien funtzionamendu eta mantentze-lan egokien erantzuleak. Horrez gain, haien erantzukizuna izango da instalazioko osasun— eta segurtasun-baldintzak egokiak izatea.

d) No se concederá licencia de primer uso de piscinas, si no se verifica el cumplimiento de los puntos a) y b) del presente artículo.

e) Se prohíben los trampolines, plataformas de salto, toboganes y deslizadores y otros elementos acuáticos.

Artículo 6. Edificabilidad ponderada

La construcción de una piscina permanente o la instalación de una piscina no supone incremento de la edificabilidad ponderada en suelo urbano consolidado.

Artículo 7. Abono de impuestos, tasas y derechos.

1. La construcción de la piscina estará sujeta al pago del impuesto de construcciones, obras e instalaciones, de acuerdo con lo establecido en las Ordenanzas Fiscales.

2. La cuantía de las tasas por tramitar las licencias en sus distintos casos y modalidades, se fijará en las correspondientes Ordenanzas Fiscales.

3. Se cobrará una tasa de agua diferenciada por consumo en piscinas, que se fijará en las correspondientes Ordenanzas Fiscales.

Artículo 8. Del periodo de uso de las piscinas.

Sólo se permitirá el uso de las piscinas desde el 1 de mayo hasta el 30 de septiembre.

Artículo 9. Del uso del agua de la red pública.

Sólo se permitirá el llenado de piscinas de carácter privado con agua de la red de abastecimiento, en todo el término municipal de Usurbil, durante los siguientes periodos:

a) del 1 de mayo al 30 de septiembre.

b) No se permitirá el llenado de piscinas en fines de semana, desde las 24,00h del viernes hasta las 8,00 horas del lunes.

c) No se permitirá el llenado de piscinas en horario nocturno, de 22'00h a 8'00h.

Artículo 10. Del llenado de las piscinas

El llenado de piscinas, sean de obra o portátil, con agua de la red de abastecimiento, se deberá poner en conocimiento del Ayuntamiento con una semana de antelación, y se deberá verificar siguiendo estrictamente las indicaciones de los servicios municipales.

Artículo 11. Del cubrimiento de las piscinas.

El vaso de las piscinas deberá cubrirse con lonas o similares del 1 octubre hasta el 30 abril para garantizar las condiciones de seguridad y evitar el uso en fechas no autorizadas por la presente Ordenanza.

Artículo 12. De la responsabilidad.

Los titulares de las piscinas son responsables de su correcto funcionamiento y mantenimiento, así como de que las condiciones sanitarias y de seguridad de las instalaciones sean las adecuadas.

13. artikulua. Arau-hausteei buruzkoa.

Ordenantza honen helburuetarako, kasu bakoitzean aplikagarriak diren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean eta Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorrean tipifikatutako administrazio arloko arau-hausteei kalterik eragin gabe, arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke irizpide hauen arabera: arduragabekeria maila, sortutako kaltearen larritasuna eta berriz egitea.

A. Arau-hauste arinak dira hauek:

1. Igerilekuak sare publikoko urarekin betetzea astebete lehenago Udalari horren berri eman gabe. Edo ordenantza honetan horretarako ezarritako ordutegiz kanpo betetzea igerilekua.

2. Ur-araztailearen okerreko funtzionamendua.

3. Ur-hartuneko ixteko giltza baldintza txarretan edo udal-zerbitzuetarako irisgarria ez den moduan izatea.

4. Ordenantza honetan eta legezko eta arau arloko gainerako xedapenetan bildutako betebeharrak eta debekuak ez betetzea, haien izaera dela eta beste sailkapen bat dagokienean izan ezik.

B. Arau-hauste larriak dira hauek:

1. Obrako igerilekuetarako eta 25 metro kubiko baino gehiagoko edukiera duten igerileku eramangarrietarako 5. artikuluko ezarritako baldintzak ez betetzea.

2. Saneamenduko sare orokorrera erabat hustea ahalbidetzen duten husteko ekipamendurik ez izatea; edo hustuketa lursailean dagoen hartuneko kutxatilara konektatutako ur beltzen sarearen bidez ez egitea.

3. Edukieraren eta erabiltzaile kopuruaren arabera dagokion urak arazteko instalaziorik ez izatea.

4. Igerileku eramangarriak ez desinstalatzea behin-behineko lizentziaren indarraldia amaitzen denean.

5. Igerilekua hegalarekin estaltzea, nahiz eta behin-behineko izan.

6. Bi urteko epean, hiru arau-hauste arin egitea.

C. Arau-hauste oso larriak dira hauek:

1. Igerilekuak instalatzea dagokion lizentzia edo baimen gabe, edo haien baldintzak bete gabe.

2. Baimenak edo lizentziak izapidetzeko beharrezko datuak ezkatutzea edo faltsutzea.

3. Igerilekuen erabilerari eta instalazioari buruzko udal-aginduak eta -akordioak ez betetzea.

4. Bi urteko epean, hiru arau-hauste larri egitea.

14. artikulua. Zigorrak.

Ordenantza honekin lotutako arau-haustek 300 euro eta 20.000 euro arteko isunekin zigortuko dira eskala onen arabera:

Artículo 13. De las infracciones.

Sin perjuicio de las infracciones administrativas tipificadas en la Ley 2/2006 del Suelo y Urbanismo y la Ley 3/1998 General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, aplicables a cada caso, a los efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasificarán en leves, graves y muy graves atendiendo a criterios de grado de negligencia, gravedad del perjuicio producido y reincidencia.

A. Son infracciones leves:

1. Proceder al llenado de las piscinas con agua de la red pública sin ponerlo en conocimiento del Ayuntamiento con una semana de antelación. O realizar el llenado incumpliendo el horario establecido para ello en la presente ordenanza.

2. El funcionamiento incorrecto de la depuradora de aguas.

3. Tener la llave de paso de la acometida de agua en malas condiciones o de manera inaccesible para los servicios municipales.

4. El incumplimiento de las obligaciones y prohibiciones contenidas en la presente Ordenanza y demás disposiciones legales y reglamentarias, salvo que por su naturaleza merezcan otra clasificación.

B. Son infracciones graves:

1. El incumplimiento de las condiciones que establece el artículo 5 para las piscinas de obra y para las portátiles con más de 25 metros cúbicos de capacidad.

2. No disponer de equipos de desagüe que permitan su vaciado completo a la red general de saneamiento; o no realizar el desagüe a través de la red de aguas fecales, conectada a la arqueta de acometida existente en la parcela.

3. No disponer de instalación de depuración de aguas adecuada a su capacidad y número de usuarios.

4. No desinstalar las piscinas portátiles cuando finalice la vigencia de la licencia provisional

5. Proceder a cubrir la piscina con vuelo, aún cuando sea de forma provisional.

6. La comisión de tres infracciones leves en el plazo de dos años.

C. Son infracciones muy graves:

1. La instalación de piscinas sin la correspondiente licencia o autorización, o sin sujetarse al condicionado de éstas.

2. La ocultación o falseamiento de los datos necesarios para la tramitación de las autorizaciones o licencias.

3. El incumplimiento de las órdenes y acuerdos municipales sobre instalación y uso de piscinas.

4. La comisión de tres infracciones graves en el plazo de dos años.

Artículo 14. Sanciones.

Las infracciones a la presente Ordenanza serán sancionadas con multas de 300 euros a 20.000 euros, de acuerdo con la siguiente escala:

- a) Arau-hauste arinak: 300 eurotik 1.000 eurora.
- b) Arau-hauste larriak: 1.001 eurotik 6.000 eurora.
- c) Arau-hauste oso larriak: 6.001 eurotik 20.000 eurora.

Zenbateko horiek, beharrezkoa izanez gero, berrikusi eta eguneratu ahal izango dira. Era berean, Ordenantza Fiskalak berrikusi ahal izango dira.

Gainera, arau-hauste larriak eta oso larriak igerilekuaren erabilera gaitasunik gabe utzita zigortu ahal izango dira (hustuketa, zigilua, desinstalazioa...).

15. artikulua. Zigortzeko eskuduntza.

Zigortzeko ahalmena erabili ahal izateko, beharrezkoa izango da dagokion espedientea irekitzea eta bideratzea indarrean dauden legezko edo araudi mailako xedapenetan ezarritakoa betez.

Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteetarako aurrez ikusitako zigorrak ezartzea Udalbatzako alkateari dagokio.

16. artikulua. Kautelazko neurriak.

Arau-hauste gehiago egitea eragozteko helburuarekin zehapen-espedienteari hasiera emandakoan, kautelazko neurri gisa, ixteko giltza edo igerilekua zigila daiteke. Era berean, auzipetutako gertaerak edo garrantzi antzekoa duten beste batzuk egiten jarraitzea edo haiek errepikatzea, edo haiek eragindako kalteak bere horretan mantentzea ekiditeko edo haiek arintzeko udal-zerbitzu teknikoek egokitutako jotako neurriak hartu ahal izango dira.

Kautelazko neurrien inguruko akordioa arrazoitua izango da eta alde zuzeneko interesdunei entzuteko aukera eman beharke zaie hamar eguneko epean. Horren salbuespena izango da beharrezko kautelazko neurriek birtualtasuna galtzea, alde zuzeneko entzunaldiaren izapidetzea egin arte neurri horien aplikazioa atzeratuz gero. Kasu horretan, epe berarekin, ondoren egin beharkeko alegazioekin ordezkatu ahal izango da.

17. artikulua. Arau-hausteak eta zigorrak preskribatzea.

Arau-hauste arinak sei hilabeteko epean preskribatuko dira; larriak urtebetera; eta arau-hauste oso larriak, aldiz, bi urtera.

Arau-hauste arinengatik ezarritako zigorrak urtebetera epean preskribatuko dira; arau-hauste larriengatik ezarritakoak, bi urtera; eta arau-hauste oso larriengatik ezarritakoak, aldiz, hiru urtera.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetuta geratuko dira ordenantza honen aurkakoak edo kontraesanak diren maila bereko xedapen guztiak.

Aldi baterako xedapena.

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik zeuden igerilekuen jabeek 10 hilabeteko epea izango dute hurrengo artikuluetan xedatutakoa betetzeko: 5.1.1., 5.1.5., 5.1.6., 5.2., 8., 9., 10., 11. eta 12.

Amaierako xedapena. Indarrean sartzea.

Ordenantza hau Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikulua xedatutakoa betez sartuko da indarrean.

- a) Infracciones leves: de 300 a 1.000 euros.
- b) Infracciones graves: de 1.001 a 6.000 euros.
- c) Infracciones muy graves: de 6.001 a 20.000 euros..

Estas cuantías podrán revisarse y actualizarse, en caso de considerarlo necesario, junto con la revisión de las Ordenanzas Fiscales.

Además, las infracciones graves y muy graves, podrán ser sancionadas con la inhabilitación del uso de la piscina (vaciado, precinto, desinstalación...)

Artículo 15. Competencia sancionadora

El ejercicio de la potestad sancionadora requerirá la incoación e instrucción del correspondiente expediente, de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales o reglamentarias vigentes.

La imposición de las sanciones previstas para las infracciones tipificadas en esta Ordenanza corresponderá al Alcalde de la Corporación.

Artículo 16. Medidas cautelares

Iniciado expediente sancionador con el fin de evitar la comisión de nuevas infracciones podrán adoptarse como medida cautelar, el precinto de la llave de paso o de la propia piscina; así como cualquier otra que los servicios técnicos municipales consideren oportunas para evitar la continuación o repetición de los hechos enjuiciados u otros de similar significación o el mantenimiento de los daños que aquéllos hayan ocasionado o para mitigarlos.

El acuerdo de medidas cautelares deberá ser motivado y requerirá previa audiencia de los interesados por plazo común de diez días, salvo que las medidas cautelares necesarias pierdan su virtualidad si se pospone su adopción hasta la realización del trámite de audiencia previa, en cuyo caso podrá sustituirse por unas alegaciones posteriores en idéntico plazo

Artículo 17. Prescripción de las infracciones y sanciones

Las infracciones prescribirán a los seis meses en el caso de las leves, al año en el caso de las graves y a los dos años en el caso de las muy graves.

Y las sanciones impuestas por faltas leves prescribirán al año, las impuestas por faltas graves a los dos años, y las impuestas por faltas muy graves a los tres años.

Disposición Derogatoria.

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de igual rango que incurran en la oposición o contradicción con la presente ordenanza

Disposición Transitoria.

Los titulares de las piscinas existentes a la entrada en vigor de esta Ordenanza, dispondrán del plazo de 10 meses para dar cumplimiento a lo establecido en los artículos 5.1.1., 5.1.5., 5.1.6., 5.2., 8., 9., 10., 11. y 12.

Disposición Final. Entrada en vigor

La presente Ordenanza entrará en vigor de acuerdo con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local.